

INFORMAZIOA EMAN EZ IZANARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako prozedurei jarraiki aurtengo irailaren 7an galdera idatzia zuzendu genion Eneko Goia Laso alkate jaunari honako termino hauetan.

“La Herrera inguruko bizilagunak oso adi daude Trintxerpetik Herrerara joango den bidea eraikitzeko obrak direla-eta. Zalantza ugari sortu dira obrak garatzen ari diren bitartean. Horietako bat, bidea sostengatuko duten hormek aurreikusitako altuera izango duten ala aurkezturiko egitasmoan zegoena baino altuagoak geratuko ote diren. Obrak ez dira Udaleko ardura, nahiz eta parte bat bere jabegoaren gainean eraikiak egon baina, zalantzarik gabe Donostian bizi diren herritar ugariren egunerokoan eragingo du. Geroko mantenuaz zein arduratuko den ezin izan da argitu orain arte, Donostiako Udalari nolabait eta zerbait egokituko zaiolakoan. Horregatik egokia Udala honen guztiaren gainean egotea.

Horiek horrela, honako GALDERA egiten dut:

GALDERA

- 1,- Egia al da Trintxerpetik Herrerara joango den bidea eraikitzerakoan, berau sostengatzen duten hormak aurreikusitakoa baino altuagoak direla?*
- 2,- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa izanez gero, gorago eraiki izan horrek gailentzen izango ditu? Zenbatekoak?*
- 3,- Eragina izango du irisgarritasunean? Zer beste ondorio izango dira?*
- 4,-Argitu al da eraiki ondorengo mantenua zeini egokituko zaion? Lehen galderaren erantzuna baiezkoa balitz, eragingo al dio geroko mantenuaren kostetan?”*

Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako epeak ia bi aldiz gainditu arren erantzunik jaso ez genez eta, aldiz, loturaren obrari buruzko xehetasun kezagarriak jaso eta ikusi genituzenez, interpelazioa aurkeztu genion Udal Gobernuari zer zela-eta Udal Gobernuak ez zuen Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako prozeduraren eta epeen arabera jokatu eta zer zela-eta ez zuen erantzun nahi izan.

Batzordean delegatuak erantzun ez izanaren akatsa onartu zuen, gertatutakoaren arrazoi argirik eman gabe, baina berehalakoan, gaia bideratuta zegoenez, erantzuna jasoko genuela. Irailaren 7tik hiru hilabete luze doaz galdera egin gizenetik, hilabete luze interpelazioa aurkeztu gizenetik...

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

eta oraindik ere ez da inongo erantzunik eman. Dagoeneko alkatea bera aipaturiko obraren inauguraziora bertaratu ere egin zen, baina gure galderen erantzunak ez dira ailegatu.

Hogeita hamar eguneko epea zuen Gobernuak egindako galderari erantzuteko. Izan ere, agintaldi honetan Udalbatza honek jarritako epea da; alegia, Udal Gobernuak osatzen duten kideek beraiek onartua baina betetzen ez duena.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Udal Gobernuari hertsiki eskatzen die dagokien moduan jokatzeko, eta alkate zein gobernu diren neurrian, Udalbatzak dituen arauen arabera jokatzeko, onartu dituen epeetan egiten zaizkion galderak erantzuten, atzerapen ulertezinetan erori gabe.

Donostian, 2018ko abenduaren 14an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia